

Baina moneta ebaluatzeko ahalmenaren galtzea izan daiteke garrantzitsuena etorkizunari begira, gure enpresek galdutako lehiakortasuna berreskuratzeko tradizionalki, behin eta berriro, erabili izan den ekonomi politikarako tresna galdu egingo baita. Egoera berria, dirudienez ordezko sistemarik ezarriko ez denez, erronka handia izango da gure enpresarientzat, munduko onenekin baldintza berberetan lehiatu beharra izango dute eta.

Abantailen artean aipatu beharrekoak dira ziurgabetasunen gutxitzea orokorrean —truke ziurgabetasunen gutxitzea bereziki—, inflazio moderatu eta egonkorra, eta diruaren prezio merkeagoa. Merkatuek gardentasun handiagoa izango dute gainera, eta horrek erraztu egingo du erabakien hartzea, transakzio kostuak gutxitu egingo ditu eta nazioarteko harremanen agirien gora-beherak erraztu egingo ditu.

EMBa funtsezko aldaketak ekarri ditu gure enpresen testuinguruan eta lanerako baldintzetan. Horrek, aurrena, egokitze bat eskatuko die, egokitze kulturala eta administratiboa batik bat, eta ondoren, kudeaketa era berriak. Horregatik, harrigarria da enpresa taldeak eta enpresa handiak baino ez aritzea euroaren ezartzeak enpresen estrategian eta funtzionamenduan izango dituen ondorioei buruz hausnarketa egiten.¶

[Erredakzioan euskaratua]



Mikel Zurbano

Ekonomi eremuak birpentsatzen: euroa aro globalean

Europako Ekonomi eta Moneta Batasunaren (EMB) sorrera puntako gertaera politiko, sozial eta ekonomikoa da munduko egungo panoraman. Mende honen amaiera bi aroen arteko zubialdi gisa aurkezten zaigu, Europako inte-

grazioa batetik besterakoan giltzarri izanik. Europako integrazioa eskuarki eta EMB partikularki, mundu mailako prozesu ekonomiko eta politikoen emaitza dinamikoa da eta, halaberean, EMBak eta euroaren sorrerak prozesu horiek bizkortu eta baldintzatuko dituzte halabeharrez.

Honezkero agerian da euroak dakartzan berrikuntzen eremu zabalean non kokatuko dudan burutapen xume hau: nazioarteko eszenatokian alegia. Hasteko nazioarteko ekonomi integrazioak eta bere testuingurua azaltzen dira, euroaren Europa kontestu horretan kokatuz EMBaren ekarpenaz jarduteko gero, subiranotasun ekonomikoaren auziaren inguruko hausnarketarekin amaitzeko.

Ekonomi integrazioen eszenatokiak

Kapitalismoaren sorrera eta garapenarekin nazio ekonomiak bihurtu ziren harreman ekonomikoetarako oinarritzko eremuak. Horien instituzionalizazioak estatu-nazioaren itxura hartu zuen. Harrezkero harreman ekonomiko kapitalistek nazio ekonomiaren eremu estu hori gainditzeko joera iraunkorra gero eta nabarmenago erakutsi dute. Hots, ekonomia kapitalistaren berezko joera nazioarteratze prozesu bizkorra da. Dinamika estruktural honek agerian utzi zuen hasieratik oinarritzko eremu nazionala eta nazioz gaindikoa indarren arteko kontraesana, zeina denboraren poderioz areagotu den. Nazioartean garaian garaiko ekonomi ordenuren bat eraiki behar izan da kontraesan hori leundu eta egonkortasun ekonomikoa zein politikoa bermatzeko.

Garapen eredu fordista eta Bretton Woods-eko ekonomi ordenuaren krisialdiak ageriagoan utzi zuen aipatutako kontraesana, izan ere harreman ekonomikoek nazioz gaindikoa norabidea indartzen zuten bitartean ordura arte eraginkorrak izandako nazioarteko instituzio eta hitzarmenak (IMF, GATT...) krisiaroan murgildu ziren. Halaber, 1970eko hamarkadara arte EEBBeko ekonomiak eta zehazki dolarrak izandako hegemonia ahuldu eta itxuraldatu egin da geroztik, EEBBek ezin izan baitute gerraosteko ekonomi nagusitasuna bere horretan mantendu, batik bat Alemania eta Japoniako lehia indartsuagatik baina baita bere nazioarteko posizioaren kontestuan eginiko gehiegikeriengatik ere.

Beraz, azken bi hamarkadetan munduko ekonomian hegemonia bakarretik lidergo hirukoitzerako trantsizioa ezagutu dugu. Prozesu honek *triadizazio* izena du eta mundu mailako ekonomi harremanak hiru gune nagusien inguruan egituratu eta oinarritzen direla eman nahi du aditzera (Petrella, R. [1997: 77]). Hiru ekonomi gune horiek Estatu Batuak, Japonia eta Alemaniaren lidergopean erakitzen ari dira, gune bakoitzaren eremuan ekonomi hartuemanen sare propioa osatuz eta talde transnazionalentzat berezko barrutiak ziurtatuz. Egoera berri honek nazioartean herrialdeen arteko oreka berriztatua islatzen du eta lider bakarraren testuinguruan sortutako nazioarteko erakunde zilegitasuna eta funtzioak zalantzan jartzen ditu, hala nola estatu-nazioen ekonomi subiranotasuna. Munduko Barne Produktu handiena duten zortzi herrialdeen (G-8) taldea abian jarri izana da horren erakuslea.

Europako Batasuna: integrazio prozesuen buruan

Nazioarteko *triadizazio* prozesu honen itzalpean gune bakoitzeko integrazio prozesuak sortu edo bizkortu dira. Inguruko herrialdearteko merkataritza harremanak abiapuntutzat hartuz integrazio eremu desberdinen bilakaera eman da. Ikuspegi geoekonomikotik prozesu hauen artean aipagarriak dira Asiako hegoekialdekoa, Hegoamerikakoak (Mercosur garrantzitsuena izanik), Iparramerikakoak (NAFTA) eta Europakoak (EFTA eta Europako Batasuna). Haue-tako gehienetan integrazioaren lehen urratsa jorratu da: integrazioko herrialdeen arteko mugasarien ezabapena eta, beraz, integrazio barrutiko ondasun eta zerbitzuen zirkulazio librea. Baina merkataritza lehentasun honez hara-tago ez da urrats gehigarririk eman, ezta aurreikusi ere. Egia da badela gune bakoitzeko txanpon nagusiaren inguruan moneta eremua ia osatua, yenak, dolarrak eta marko/euroak eragin eremu zabalagoak itxuratuz. Hala ere, moneten eragin eremuak dibisa hauek duten nagusigoa dela medio tajutzen dira eta ez integraziorako borondate esplizituagatik.

Europako Batasuneko (EB) prozesua da salbuespena, egindako ibilbide luze bezain gora-beheratsuak merkatal

integrazio soila gainditzea ekarri baitu. Oro har, Europako batasun prozesua berez mundu mailako lankidetzaz eta arauketaren gabeziari, hots, Estatu partaideen subiranotasun mugatuei, eskualdean emandako behin-behineko erantzuna da.

Neoliberalismoaren bultzadarekin Europako Batasuna laurogeiko hamarkadatik merkatuaren gidaritzapeko nazioarteratze prozesu autonomo gisa itxuratu da eta ez soilik merkataritza arloan, baita kapitalen merkatuen, teknologiaren eta produkzio sistemaren arloetan ere. Hortik aurrera, merkatu bakarra osatzea eta ekonomi batasuna eskuratzea ezinbestekoak bihurtu ziren Europako integrazio prozesuan.

Merkatu Bakarra eratu zen 1992an Akta Bakarra aplikatuz eta ondasun eta zerbitzuen zirkulazio libreaz haratago kapital eta pertsonen zirkulazio librea ere indarrean ipini zen. Kontuan hartu behar dugu ordurako EB aduana batasuna zela jadanik, hots, partaideak ez ziren herrialdeekiko mugasari bateratu eta bakarra aplikatzen zietela EBeko herriek eta, beraz, merkataritza politika amonizatua indarrean zegoela EBean.

Ekonomi batasunerako ildo estrategikoak bistan zeuden hamarkada honen hasieran: merkatuaren gidaritzaz eta konbergentziarako irizpide monetarioak. Abian zegoen merkatu bakarrak diru bakarra eskatzen zuen logika horren ondorioz eta, hein berean, eskuharmen publiko minimoa. Honela, txanpon bakarra ekonomi batasunaren giltzarri bihurtu da eta horretara iristeko aldagai monetario eta publikoen irizpideek Estatuetakoko ekonomi eskuharmenerako ahalmena biziki baldintzatu dute. Trantsizioaldi honetan Estatu kideen moneta politikak hurbildu egin dira eta gidaritzaz lanetan diharduten Banku Zentralak botere politikoarekiko autonomizatu egin dira.

Beraz, *euroa* gure artean izango dugunerako moneta politika bakarra ez da berrikuntza izango, urte batzuetako errealitate irmoa baizik. Ordurako beste politika publiko batzuk ere batasunerako ibilbidea jorratua izango dute, hala nola Nekazaritza Politika Bateratua, merkataritza politika, industri eta ikerketa, azpiegitura, etab. Aurrekontu

politikak ere oso irizpide homogeenak izango ditu, kopuruz BPGarekiko ehuneko hiruko muga zorrotza irizpide gisa betiko mantenduko baita Amsterdamen hitzartutako Egonkortasun Ituna dela eta.

Ekonomi subiranotasunak Europako Batasunean

Egoera berriak hainbat arlotan du eragina baina azterketaren helburuak ekonomi subiranotasunaren arlora mugatzen gaitu. Europako Batasunean euroa indarrean ipintzeak herrialde partaideetako ekonomia *nazionalen* ohiko zutabeak kolokan jartzea ekarriko du eta honekin batera ekonomi zikloan eragiteko erabili ohi diren tresna *nazional* tipikoak ere.

Ekonomia *nazionalaren* funtsezko osagaiei erreparatuz gero lau aipa ditzakegu Kébabdjian (1994) egilearekin batera: moneta, salkari eta zerbitzuen merkatu propioa, faktoreen merkatu *nazionalak* eta arauketa zein instituzionalizazio esparru bereiztua. Aipatua izan denez, ondasun eta zerbitzuen merkatuak zein produkzio faktoreenak (kapitalarena eta lanarena) bateratuak daude EBeko eremuan hamarkada honen hasieratik. EMBarekin txanpon bakarra eta Europako Banku Zentrala (EBZ) sortuko dira. Honela, hamaika Estatu partaideek azken hamarkadan Alemaniako Bundesbank-en agindupean zuten moneta autonomia urria behin betiko galduko dute. Arauketa eta ekonomi politikak, oro har, armonizatze aldera egingo dute gorago aipatu dugun bidetik. EBeko (11) ekonomiak, beraz, soslai *nazional* tipikoa hartuko du EMBarekin. Lan eta giza arloko arautegi bateratuaren gabeziak soilik itxuragabetzen dute ekonomia kontinentaleko izaera *nazionala*.

Honek guztiak ez dakar estatu-nazioaren gainbehera halabeharrez, nahiz epe luzean bere habeak eraldatu bide diren. Lehen aipatua izan den gisa, laurogeiko hamarkadatik merkatura zuzendutako eskuhartze publikoko era *pasi-boak* nagusitu dira Europako integrazio eremuan. Aitzitik, merkaturako arauketa komunak ezartzean edota merkaturaren giza eraginak arautzean *positiboan* hartutako erabaki politikoak eskatzen dituzte eta hauek sarritan nazioz gaindiko eraikuntza instituzionala ekarri ohi dute. Esate bate-

rako, EMBetik arlo soziala baztertzea Europako batasun ekonomikotik estatu-nazioaren lehentasuna mantentzeko saioaren isla da. Lehenik, *positiboan* egindako eraikuntza hori eragozten duelako eta, gainera, giza zilegitasuna naziozgain hedatzea ekiditean Europa mailako berezko nor-tasunaren erakuntza oztopatzen duelako.

Estatu-nazio europarraren zilegitasuna ez da kaltetua irten prozesu honetatik, integrazio prozesuan jokatzeko duen papera behatuz eta integrazioaren eredu hainbat hastapen eta oinarri erreparatuz (hala nola subsidiaritatea, nazioz gaindiko baino nazioarteko izaera Europako Batzordeari dagokionean, etab.).

Laburbilduz, *triadizazioak* eta merkatuaren gidaritzapeko estatu-nazioaren berregituraketa prozesuak EBaren barnean ekonomi subiranokidetasunaren eraberikuntza dakar, mundu mailako aitzindarritza hartuz eta *nazio* baka-rreko ekonomi subiranotasun aroaren behin betiko amaiera iragarritz.

Azken finean, EMBarekin Europako eraikuntza prozesua erakunde instituzional berri baten hazia izango da, estatu-nazio klasikoarekin zein orain arte ezagutu ditugun estatuen batura soilarekin zerikusirik izango ez duena.

Nazioarteko ordenua, eremuak, subiranotasunak

Europako integrazio esperientziak Europan sortzear dagoena guztiz berria dela ekartzen du bistara: estatu-nazioen gobemurteko erlazioek kontrolatutako nazioarteko ordenua. Honen bitartez, transnacionalizatutako munduko ekonomiarentzat eskualde eta barne antolaketa ahalik eta egonkorrena ziurtatzen da. Dena den, integrazio eremueta-ko dinamikaren berriak hainbat ekonomi oinarri konplexuago bihurtzen du, besteak beste, ekonomi subiranotasuna. Ekonomi subiranotasun *zatiuek* integrazio eremuen egokiera ekarri du eta integrazio eremu aitzineratuenek subiranotasunaren *zatiketa* eta konplexutasuna areagotu dute.

Nazioarteko ekonomi ordenuaren egonkortasun ezak erantzun multilateralak eskatzen ditu. Honen aurrean estatuak uholde liberalaren haritik erantzuteko saioa baino haratago jo beharrean aurkitzen dira bitarteko erakunde-

tzerako eremu berriak formulatuz eta bultzatuz. Nolanahi ere, prozesua kontraesankorra da eta berregituraketa prozesuan dagoen estatu-nazioak, EBekoak kasu, eszenatoki berrian berkokatzeko ahaleginak egiten ditu zilegitasun esparru berriak bilatuz. ¶

Bibliografia

- ARIZKUN, A.; GALARZA, E. eta GOMEZ, M. (1998). *Economía vasca, soberanía y globalización*. Robles Arangiz, Bilbo.
- BOYER, R. & DRACHE, D. (arg.) (1997). *States Against Markets. The limits of globalization*. Routledge, Londres.
- COMMISSION DE LA C.E. (1997): «Les aspects externes de l'Union Economique et Monetaire». Lan agiria II/158/97-FR rev. 1 (apirilak 18).
- KEBABDJIAN, G. (1994). *L'économie mondiale. Enjeux nouveaux, nouvelles théories*, Seuil, Paris.
- PETRELLA, R. (1997): *Globalization and internationalization: the dynamics of the emerging world order.*, in Boyer, R. & Drache, D. (arg.).